



LOURDES IRIONDO

1937-2005

Urnietako herriaren oroimenean

En la memoria de Urnieta



2005eko abenduaren 27an joan zen betiko Lourdes Iriondo. Bizitzeko gogoarekin borroka luzea eduki eta gero, galtzaile atera zen abeslaria. Honelako kasuetan gertatzen den bezala, bizirik zegoela Lourdesek ez zuen inolako aitortza publikorik jaso. Omenaldirik ez zitzaion egin hainbeste meritu egindako emakumeari, baina Lourdes ezagutu zutenek badakite bera ez zela ekitaldi horien aldekoa eta ez zituela horrelako festak batere gogoko.

Lourdes ez zen nabarmendu soilik abeslari edota Ez Dok Amairu kultur mugimenduko aitzindari gisa. Gure herrian, kultur espresio askoren adierazgarri eta bultzatzaile izan genuen. Antzerki talde bat bere ardurapean eduki zuen, eta Egape ikastolako ikasleei plastikako eskolak eta euskal dantzak eman zizkien. Bertako ikasleekin hainbat antzerki obra grabatu zituen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskaturiko lan bat egiteko. Ondoren, herriko Gurea emakumeen elkarteko kideei gimnasia eskolak eman zizkien. Parrokiari ere oso lotua egon da, 12:30eko mezetako koruaren ardura zuen, etab.

Horrek guztiak argi eta garbi erakusten du Urnieta herriak zorra –zor handia– daukala emakume honekin. Jasotako guztia itzultzeko, omenaldi bat eskaini behar zitzaion Lourdesi.

Lourdes Iriondo se fue para siempre el 27 de diciembre de 2005. Tal y como ocurre en muchos casos, Lourdes nunca recibió en vida ningún reconocimiento público. No se le rindió ningún homenaje a una mujer que tantos méritos había acumulado, pero los que la conocieron saben bien que a ella no le gustaban mucho ese tipo de actos y fiestas.

Lourdes no destacó únicamente como cantante o como referente del movimiento cultural Ez Dok Amairu. También tuvo a su cargo a un grupo de teatro, e impartió clases de plástica y de bailes vascos a los alumnos de la ikastola Egape. Grabó varias obras teatrales con los alumnos de la ikastola, con motivo de un trabajo encomendado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Posteriormente, dio clases de gimnasia a los miembros de la asociación de mujeres Gurea de Urnieta. Asimismo estuvo muy ligada a la parroquia, tuvo a su cargo el coro de misa de las 12:30, así como diversas tareas litúrgicas.

Es evidente, pues, que el pueblo de Urnieta tiene una deuda –una gran deuda– con esta mujer. Para devolver todo lo que hemos recibido de Lourdes, era necesario rendirle un homenaje.

Lourdes, txori kantaria

Donostiako Moraza kalean jaio zen Lourdes Iriondo, 1937ko martxoaren 27ko arratsalde euritsu batean. Hamaika anai-arrebetatik bigarrena zen. Zazpi urte zituelarik, bere familia-rekin batera Urnietara bizitzera etorri zen. Hogei urterekin, bizitza osoan lagunduko zion estenosi mitral gaixotasuna diagnostikatu zioten. Hala ere, gaixotasunak ez zizkion ezabatu bere musikarako grina eta zaletasuna.

Aitak oparitutako gitarra eskuetan zuela hasi zen kantari, eta 1964an egin zuen bere lehen agerraldia, Andoainen, lagun batek gonbidatuta. Sekulako arrakasta izan zuen, eta laster hasi ziren beste herri eta auzoetatik deitzen kantatzera joateko eskatuz.

1965ean, berrogeita hamar kantalditik gora ematera iritsi zen. Urte berean, beste euskal kantari, poeta eta artistekin batera, Ez Dok Amairu taldea sortu zuen. Taldeko bozeramaile eta idazkari izan zen denbora labur batean, eta batzuen ustez taldearen irudi femeninoa zen. 1978an eman zuen bere azkeneko kantaldi ofiziala, Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Baina ez zuen hor bere lana bukatutzat eman: Urnietako Egape ikastolako haurrei plastika, kantak, euskal dantzak eta antzerkia irakasten jarraitu zuen. Umezale handia zen Lourdes, eta Urnietako haur guztiak maite zituen, bereziki bere ilobak. Parrokiako gaztelerazko koruan lan handia egin zuen, eliz kantuak heldu nahiz haurrei irakasten.

2005eko abenduaren 27an hil zen Lourdes, hirurogeita zortzi urte zituela, Donostia Ospitalean bi aste pasa eta gero. Nahiz eta gorputzez gure artean ez egon, gure oroimenean izango dugu Urnietako txori kantari nekaezin hau.



▲ Angela Enea, Lourdes Iriondoren etxea.

Lourdes Iriondo nació en la calle Moraza de Donostia, una tarde lluviosa del 27 de marzo de 1937. Era la segunda mayor de once hermanos. A los siete años vino a vivir a Urniet junto con su familia, y a los veinte le diagnosticaron una estenosis mitral que le acompañaría durante toda su vida. A pesar de ello, no perdió su pasión y afición hacia la música.

Comenzó a cantar con la guitarra que le regaló su padre, y en 1964 ofreció su primera actuación en Andoain, gracias a la invitación de un amigo. Tuvo un gran éxito, y pronto empezó a recibir llamadas de otros municipios y barrios.

En 1965 llegó a ofrecer más de cincuenta recitales. Este mismo año creó, junto con otros cantantes, poetas y artistas vascos, el grupo Ez Dok Amairu. Fue la portavoz y secretaria del grupo durante un breve periodo y, en opinión de algunos, fue la figura femenina del grupo. Su último recital oficial lo ofreció en 1978, en el frontón Galarreta de Hernani. Pero con ello no daría por concluido su trabajo: siguió enseñando a los niños de la ikastola Egape múltiples actividades artísticas tales como plástica, canto, bailes vascos y teatro. Lourdes era una gran amante de los niños; quería a todos los niños de Urniet, y en especial a sus sobrinos. Realizó una gran labor en el coro castellano de la parroquia, enseñando cantos litúrgicos tanto a mayores como a niños.

Lourdes murió el 27 de diciembre de 2005, a los sesenta y ocho años de edad, tras permanecer ingresada durante dos semanas en el Hospital Donostia. Si bien ya no está presente en cuerpo entre nosotros, siempre conservaremos en nuestra memoria a este incansable pájaro cantor.

Artistari buruzko mahai-ingurua

Lourdes Iriondoren omenezko ekitaldiak hasteko, Lourdesi buruz hitz egiteko mahai-inguru bat antolatu zen 2006ko irailaren 26an.

Mahai-inguru horretan hizlari honako hauek izan ziren: Florentino Ugalde Urnietako alkatea, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako kultura sailburua eta Joxe Mari Iriondo kazetaria. Mikel Atxaga idazlea izan zen moderatzailea.

Lourdes bidegilea izan zela ezin da inola ere ukatu. Eta horregatik, Eusko Jaurlaritzak "Bidegileak" bildumaren zenbaki bat eskaini nahi izan zion. Liburuxka hori aurkezteko, Miren Azkarate izan genuen Lekaio kultur etxean.

Sailburuak hitz goxo eta adeitsuekin ekarri zituen gogora Lourdes eta hark egindako lana. Hitza hartzen hurrengoia Joxe Mari Iriondo kazetaria izan zen, "Bidegileak" liburuxkaren egilea. Iriondok Lourdesen irudia, bizitza eta bizipenak gogorarazi zizkien bertan zeuden guztiei.

Hona hemen liburuxkatik atera zituen pasarte batzuk:


“ Lourdesek zazpi urte zituen familia Urnietan bizitzera joan zenean, eta ez da harritzeko hark bere burua urnietatzat sentitzen zuela esatea, haurtzaroko urte eder asko hantxe iragan zituen-eta.”

“ Gaztetan, opera kantatzea izan zen bere ametsa eta egitasmoa, eta horretarako hasi zen prestatzen. Baina osasunak ez zion bide hori baimendu”

“ Bestalde, kantua eta kantatzea, arnasa hartzeko uneoro behar zuen haizea bezain beharreko zer bait ziren harentzat. Baina ez zuen kantatzen kantatzeagatik. Bere mezu garbia eta sakona eskaini nahi zien entzuleei, mezu sendoa, sarkorra eta ahal zuenik hunkigarriena. Eta berak gozatu ahala besteei gozarazi nahi zien, euskara eta euskal kulturaren kontzientzia errailetan zeramaten abestien bidez.”

“ Hirurogeiko hamarraldian euskal musika mugimendu berriaren definiziorik zehatz eta argiena, eta gure kantagintzaren jaiotza eta norabideak hobekien finkatu zituena Ez Dok Amairu izan zen, ziurrenik. (...) Eta Lourdesek behin behineko eragina izan zuen, bai taldearen sorreran, bai euskal kantagintza berriaren alorrean.

“ ... Eta hurrekin jostatzeko, haurrak hezteko, eta haur nahiz hazixeagoak ere bere ingurura gozo erakartzeko adur berezia zuen. Urnietako neskatokin lan bikaina egin zuen (...). Abesti zahar eta berriak erakutsi zizkien, antzerki saioak prestatu eta egin zituzten herrian...”





▲ ▼ Mikel Atxaga, Florentino Ugalde, Miren Azkarate eta Joxe Mari Iriondo, mahai-inguruan. Argazkiak: Diario Vasco.



Los actos de homenaje a Lourdes Iriondo comenzaron el 26 de septiembre de 2006 en Lekaio, con una mesa redonda en torno a la vida y obra de Lourdes Iriondo. A esta mesa asistieron como conferenciantes el alcalde de Urnieta Florentino Ugalde, la consejera de cultura del Gobierno Vasco Miren Azkarate y el periodista Joxe Mari Iriondo, con Mikel Atxaga como moderador.

No hay ninguna duda de que Lourdes fue una precursora en su tiempo. Por esa razón, el Gobierno Vasco quiso dedicarle uno de los números de su colección "Bidegileak", presentado oficialmente en la casa de cultura Lekaio por Miren Azkarate. Fue el periodista Joxe Mari Iriondo, autor del "Bidegileak", quién recogió el testigo de la consejera. Iriondo trajo a la memoria de todos los reunidos en la casa de cultura la figura de Lourdes, su vida y sus vivencias.

Lourdes Iriondo parkearen inaugurazioa



Orain dela 10 bat urte, Urnietako erdiguneak aldaketa nabarmena izan zuen. Kale berrien sorrerak Angela Enea etxe-ko lorategia desagertzea ekarri zuen. Bertan bizi izan dira, besteak beste, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete. Etxearen ondoan parke txiki bat eraiki zen, izenik gabekoa. Omenaldia dela eta, agintariak Lourdes Iriondoren izena jarri nahi izan diote, hainbat arrazoiengatik. Lourdesek bertan une asko eman zituelako, haren familiarenak izan ziren lurretan eraiki zelako, haren etxe-ko hormari itsatsita dagoelako...

Horrexegatik, San Migel egunaz baliatuz, ekitaldi bat antolatu zen Lourdes Iriondo parkea inauguratzeko: Txanbolin txistulari bandak eta herriko bi dantzarik eskainitako aurrusua, Etxeberria eta Garmendiaren bertso hunkigarriak eta Joxe Angel Irigarai, JoxAnton Artze, Andrea Revuelta eta Xabier Letek eskainitako memento poetikoa izan genituen.



Hace 10 años el centro urbano de Urnieta cambió de forma notable. Con la construcción de nuevas calles desapareció el jardín de la casa Angela Enea, donde vivían Lourdes Iriondo y Xabier Lete. Se construyó un pequeño parque al lado de la casa; un parque sin nombre, al que con motivo del homenaje las autoridades han querido ahora darle el nombre de Lourdes Iriondo por varias razones: Lourdes pasó allí mucho tiempo, está contruido en tierras que pertenecieron a su familia, y su muro está pegado a la casa donde vivió...

Por ello, con ocasión del día de San Miguel, se organizó un acto para inaugurar el parque Lourdes Iriondo. La banda de txistularis Txanbolin y dos dantzaris locales ofrecieron un aurrusku; Etxeberria y Garmendia cantaron varios versos emotivos, y Joxe Angel Irigarai, JoxAnton Artze, Andrea Revuelta y Xabier Lete ofrecieron un momento poético.

Jarraian, Lourdes Iriondoren omenez
egun hartan irakurritako olerkiak:

Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen
ez zuen aldegingo;

baina honela
ez zen gehiago txoria izango,
eta nik...
txoria nuen maite.

Maite badut,
nahi ez dudana nahi behar;
urruntzen ikusi,
urruntzen, ezin hurbilago nahiko nukeena,
neugan behar dudana,
maite dudalako;

urruntzen ikustearen penak
ni poztu behar,
txoria txori dudalako maite...

Maitea urrunduz gero,
nola, ordea, bizi ahal
ni hura gabe,
hura izan eta bizi nauena?

bai, gogorra da biziki!... halere,

Nahi ez dudana nahi izan dudanean
maite dudalako,
horra miraria gertatu:
nahi ez dudana bera
nahi dudana zait bihurtu,
urruntzea bera hurbiltzea...!

A continuación, los poemas en honor a
Lourdes Iriondo recitados aquel día:

Maite dudanagan urrunago baino urrunagotik
hurbila baino hurbilagorik maite,
maite dudalako izan da nonbait...

Eguna joan, eguna jin,
lurra bada lorez jazten
lotatik esnatzean,
eguzkia agertzean;

orobat gaua jin, gaua joan,
ortzia izarrez apaintzen
loak hartzean,
eguzkia agurtzean;

zergatik?
zergatik, orduan,
itzali dira, ihartu dira
neguko loan,
izarrak batean, loreak bestean,
ene maitearen begietan...?

Eguneko lore zena gaueko izar bihurtzeko,
gauerdiko izar zena eguerdiko eguzki, udaberrian
neguko loa, nonbait,
ezinbesteko!

"Izan ere, iraun,
zein lorek digu
irauten laburren?"

"ederrenak, noski"

Bai, ederrenak irauten laburren...
baina laburren, begian;
luzeen bihotzean!

Eta zer, Jainkoa

Eta zer, Jainkoa
gure otoitzean baizik ez bazina,
esku dardaratiak lotzen zaizkionean ikonoari
eta argi batek piztarazten duenean gauez
madonnaren irudi sotila.

Hor naukazu zure errukiari atxikia,
azken desolaziotik babestua eta salbatua
izan nadila eskatuz.

Zuk dakizu bilatzen zintugula ilunabarrean
mendi urdinsken artean
monje legun kantatzaileek
beraien izpiritua zure altzora zeramatenean.

Biok izan baiginen kontsolamenduan bat
eliz-sabaiaetaruntz aideratzen ziren kantu ozen haietan
zure urruneko erresumaruntz
izarretatik haratago,
bakez zeudenean oihan hesia eta ibarra
eta gure arima graziaz blaituek
gauaren isiltasun murmuriotsua zutenean zelatzen.

Y qué, oh Dios

Y qué, oh Dios, si no existieras
más allá de nuestra plegaria y nuestro desamparo,
tan solitario tú y tanta orfandad en nosotros
cuando manos trémulas se alzan implorantes.

Tú sabes que te buscábamos
entre montañas azulinas al atardecer
cuando monjes suavemente clamorosos
encomendaban en tus manos su espíritu
y el cántico se elevaba hacia las bóvedas
mas allá del espacio y las moradas del viento.

Tú sabes que ambos fuimos uno,
a tu compasión atendidos,
y que nos sosteníamos en piadoso temblor
cuando había paz en la umbría
y nuestras almas transidas
acechaban el sutil silencio de la noche.

Itsas ertzean, poesian

Atzo goizean ikusi zintudan
gure herriaren minean
sentimendu eta nahikarien kantoian
kantari
askatasun taupadak zirrara bizigarriz jauntzia
justiziazko eguzki-printzaz laztanduz argisentia
bihotza zinturrean
begietan maitasun eta grina
ahotsean eder
libro izanaren oihartzuna,
garaiki eta herriak abestu eta negartutakoak,
eta gure oroimenaren lurraldean
duintasuna berriz loran
zeharbideetan hedatzen unibertsal urrinez
atzo goizean,

orain
udazkenaren isiltasunean
argisentia atzenduxe-edo
ez zara, baina bazaude
nahiz ez zauden bazara
senti zaitut
gure herriaren minean beti ere
amets eta oroitzapenean
inoiz baino askeago, ederrago
senti,
eta zure kantaren oihartzunean
gazte gara, gazte, bai
oraindik ere –noiz arte?–
izan behar gazte,
eta itsas-ertzean
hondartza luzean ibilki
zutaz oroit
idazten dut harean
–agian, ni entzutean,
askeago izateko desio ederra
sortuko zaizue barruan...–,
emeki emeki itsasgorak dena du ezabatzen
baina desiraren poesia gelditzen da
itsas-ertzean,
zu, txori kantazale eder
haren xaramelan zoazelarik
bi hegalez airean.

Kontzertua

Musikaz omentzeko lehen saioa: Pier Paul Berzaitz

Samieletako jaien barruan eman zuen Pier Paul Berzaitz (Muskildi, 1952) abeslari zuberotarrak Lourdesen omenezko bere kantaldia. Ehun ikusle baino gehiago batu ziren Sarobe arte eszenikoen gunean bere hiru diskoen –“Han eta hor” (1987), “Baratze bat” (2000) eta “Lili baten kantorea” (2005)– kantu multzo berezi bat entzutera. Iparraldekoa oso ezaguna da euskal kantagintzaren barruan, batez ere Guk taldearen sortzaileetako bat izan zelako, eta Zuberoako hainbat herrietan egin izan diren pastoral sortu eta kantatu izan baititu.

Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren azken urteetako adiskide izan da Pier Paul eta honengatik ezinbestekoa izan behar zuen bere presentzia omenaldi honetan. Kontzertu honetarako ezinbesteko laguntzaileak izan zituen; musikari bikainak eta azken urteetan berarekin lanean haritu direnak, horien artean Karlos Jimenez, Txema Garcés, Luis Camino, Xabier Zeberio, eta abar.

El cantante zuberotarra Pier Paul Berzaitz (Muskildi, 1952) ofreció su concierto de homenaje a Lourdes Iriondo coincidiendo con las fiestas de San Miguel. Más de cien personas se acercaron al centro de artes escénicas Sarobe, donde pudieron disfrutar de una amplia selección de canciones extraídas de sus tres discos –“Han eta hor” (1987), “Baratze bat” (2000) y “Lili baten kantorea” (2005)–. El cantante de Iparralde es de sobra conocido en el mundo de la canción vasca, sobre todo por ser uno de los fundadores del



grupo Guk, además de componer e interpretar pastorales que han sido representadas en pueblos de Zuberoa.

Pier Paul Berzaitz, buen amigo de Lourdes Iriondo y Xabier Lete en estos últimos años, no podía faltar en este ciclo de homenajes a la artista urnietarra. En su concierto pudo contar con importantes colaboraciones; músicos de gran nivel que en esta última etapa han trabajado junto a él, entre ellos Karlos Jimenez, Txema Garcés, Luis Camino o Xabier Zeberio.

2006/12/23
2007/01/14



← Jexux Artze Fundazioko arduraduna.



Erakusketa

Lourdes Iriondo - Ez Dok Amairu

Kutxa batean ondo gordeta zeuden Lourdesek utzitako antzerki, ipuin, liburu, argazki, eskulan eta gainontzeko lan guztiak, jende aurrera noiz azalduko zain. Xabier Leteren laguntzarekin plazaratu ziren berriro ere, eta material horrekin erakusketa bat osatu zen.

2003an, Jexux Artze fundazioak erakusketa bat osatu zuen, Usurbilgo Udalarekin batera, 60ko hamarkadan sortu zen Ez Dok Amairu taldearen eta talde horretako kide zen Jexux Artzeren inguruan. Gerora, Jexux Artze Fundazioak Usurbilgo Udalarari eman zion erakusketa, gorde eta beste herrietan erakutsi zezan. Baina gauza batzuegatik eta besteengatik, itzalpean geratu zen. Lourdesen omenaldia erakusketa hori bere loalditik esnatzeko arrazoia eta zergatia zen, eta Usurbilen Artzerekin egin zen bezalaxe, Urnietan Lourdesen irudia oinarritzat hartuta osatu zen erakusketa.

Ez Dok Amairu taldea 1965. urtean sortu zen. Garai hartako hainbat euskal artistak osatu zuten; horien artean ziren Xabier Letera, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Artze anaiak, Joxe Angel Irigarai, Lourdes bera, eta beste hainbat eta hainbat. Diktadura bortitza jasaten hari ziren garai haietan, eta euskaraz kantatzeko arazo larriak izan zituzten. Hala ere, artista eta kantari hauek euskal herriko hainbat herritan egin zituzten kantaldiak, olerki emanaldiak, etab

2006ko abenduaren 23an, Lourdes Iriondo - Ez Dok Amairu erakusketa inauguratu zen. Erakusketa bi zatitan banatu zen: kanpoaldea, Ez Dok Amairu taldean oinarritua; eta barrualdea, Lourdes Iriondoren argazki, collage, disko, liburu, antzerki eta abarrekin osatua. Kantari honen lanak berreskuratu ziren modu horretan. Lagunen artean inauguratu zen erakusketa eta urtarrilaren 14 arte egon zen jendearentzat irekita, Urnietako Lekaio kultur etxean.



Guardados en un baúl, esperando una oportunidad de darse a conocer, estaban muchos de los trabajos de Lourdes Iriondo. Con la ayuda de Xabier Lete verían otra vez la luz.


La Fundación Jexux Artze, junto con el Ayuntamiento de Usurbil, montó en 2003 una exposición sobre el grupo Ez Dok Amairu y sobre su integrante Jexux Artze. Más adelante, la fundación donaría la exposición al Ayuntamiento de Usurbil, para guardarla y para poder exponerla en otras localidades, convirtiéndose en una exposición itinerante. Pero esta exposición quedó finalmente inhabilitada por problemas técnicos. El homenaje a Lourdes Iriondo supuso una razón y un motivo para poder reactivar y despertar de su letargo esta exposición y, tal como se hizo con Artze en su localidad, en Urnieta se montaría una más basada en la figura de nuestra artista.

El 23 de diciembre de 2006 se inauguró la exposición Lourdes Iriondo - Ez Dok Amairu. La muestra se dividía en dos partes: la parte exterior estaba dedicada al grupo Ez dok Amairu; la parte interior a Lourdes Iriondo, con fotografías, discos, libros, collages, manualidades, obras de teatro y demás trabajos suyos. Con la presencia de viejos y nuevos amigos se inauguraría la exposición, que estuvo abierta al público en la casa de cultura Lekaio hasta el 14 de enero.

El grupo Ez Dok Amairu se creó en 1965 y lo componían diferentes artistas vascos, entre otros Xabier Lete, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, los hermanos Artze, Joxe Angel Irigarai o la propia Lourdes. Eran tiempos de dictadura y cantar en euskera era una tarea difícil. Sin embargo, estos cantantes y artistas organizaron recitales musicales y poéticos a lo largo de toda Euskal Herria.

2006/12/26

Ama Lur filmaren proiektzioa



Abenduaren 26an, Sarobe arte eszenikoen gunean, "Ama Lur" filma proiektatu zen. 1968. urtean bere zuzendariek Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquertek zinema aretoetara pelikula eramatea lortu zuten. Dokumental moduko pelikula honek, euskal kultura, euskal ondarea, euskal sentimentu eta nortasunaren isla izan nahi zuen. Irudia erabat nagusitzen zaio audioari, eta pertsonaien ahotsak oso gubxitan entzun ahal ditugu filmean.

Oso urriak dira 60ko eta 70eko hamarkadetako euskal kultur mugimenduaz gordeta dauden dokumentuak. "Ama Lur" multzo txiki horretan dago. Lourdes Iriondo eta Ez Dok Amairu mugimendua gogoratzeko edo hobeto ulertzeko baliagarria gerta zitekeelakoan erabaki zen omenaldi ziklo honen barruan film hau proiektatzea.

Proiektu hau aurrera eramateko Distribuidora Cinemato-

grafica Ama Lur S.A. sortu zen. Talde horrek hartu zuen pelikula egiteko dirua biltzeko ardura. Zuzenean haiek jarri zuten kapitala, eta euskal herritarrei babesa eskatu zieten, bazkide egiteko aukera emanez (bakoitzak ahal zuen neurrian), baimen ofizialak lortzeko ardura eta filma banatzea ere haiei egokitu zitzaion. Filmaren leloa "herriarentzako pelikula, herriak egindakoa" izan zen.

Garai hartako Ez Dok Amairu mugimendua eta bertako kide Lourdes Iriondo ezin ziren geratu film horretan parte hartu gabe. Kamera aurrean Lourdes agertzen ez bada ere, pertsonaia baten off-eko ahotsa ipini zuen eta pelikulari amaiera ematen dion kanta abestu zuen.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Elkarlaguntza fundazioari eta haren arduradun Andoni Esparzari, pelikula proiektatzeko baimena emateagatik.



El 26 de diciembre se proyectó la película "Ama Lur" en el centro de artes escénicas Sarobe. En 1968, sus directores Nestor Basterretxea y Fernando Larruquert consiguieron que se proyectara en las salas de cine por primera vez. La película es un documental que pretende ser el reflejo del sentimiento y de la identidad vascos. La imagen se impone al audio, y las voces de los personajes se escuchan en contadas ocasiones durante la película.

Son escasos los documentos que se guardan sobre el movimiento cultural vasco de las décadas de los 60 y los 70. La película "Ama Lur" forma parte de ese reducido grupo y por ello se decidió proyectarla dentro del ciclo de homenajes en honor a Lourdes Iriondo, pensando que podía resultar útil para recordar y entender mejor la figura de la artista y el movimiento Ez Dok Amairu. Para llevar a cabo el proyec-

to de la película, un grupo de personas creó la Distribuidora Cinematográfica Ama Lur S.A., reuniendo los fondos para realizar la película. Directamente, fue la empresa quien puso el capital necesario y solicitó el apoyo de los ciudadanos vascos, dándoles la opción de hacerse socios (cada uno dentro de sus posibilidades). Ama Lur S.A. obtuvo los permisos oficiales y distribuyó la película. El lema del film fue "una película para el pueblo, realizada por el pueblo".

No podían faltar en este film el movimiento Ez Dok Amairu ni Lourdes Iriondo. Aunque Lourdes no aparece ante las cámaras, es la voz en off de un personaje y canta la canción con la que finaliza la película.

Queremos dar gracias a la fundación Elkarlaguntza, así como a su responsable Andoni Esparza, por concedernos el permiso para proyectar la película.

Kontzertua

Joxan Goikoetxea soinujolea

Mikel Goiangeruaren eliza jendez bete zen Lourdes Iriondo hil zeneko lehenengo urteurrenean, Joxan Goikoetxea musikari hernaniarraren kontzertua entzuteko. Joxan Goikoetxea gaur egun dagoen soinujolerik ezagun eta hobereenetarikoa da. Hainbat disko dauzka kaleratuak, eta artista ezagunekin kolaboratu du. Xabierrekin eta Lourdesekin zeukan adiskidetasunak bultzatu zuen Joxan musika emanaldi hori ematera.

Kulturaren eta tradizioaren murgildutako kontzertua izan zen. Parrokiako erretaula atzealdean zuela, Bachekin hasi eta Karlos Jimenezekin amaitu zuen Goikoetxearen kontzertua. Tradizio handiko abestiak ere jo zituen; horien artean, "Guriak egin du", "Orhiko txoria", "Urnietako doinua" eta "Errota zahar maitea", denak Joxanek berak moldatuak. Entzuleak gustura zeuden hernaniar musikariaren lanarekin, eta hiru edo lau obra gehiago jo behar izan zituen bisetan. Denon oroimenean gordeko dugun kontzertua izan zen hura.

La iglesia parroquial de San Miguel Arcángel estaba a rebozar el día del primer aniversario de la muerte de Lourdes Iriondo, para escuchar el concierto del músico hernaniarra Joxan Goikoetxea, hoy por hoy, uno de los acordeonistas más conocidos y laureados, que tiene publicados varios discos y ha colaborado con numerosos artistas.

Fue un concierto sumergido en la cultura y la tradición. Con el retablo de la parroquia como fondo, Goikoetxea fue desde Bach hasta Karlos Jiménez. También interpretó piezas de gran tradición como "Guriak egin du", "Orhiko txoria", "Urnietako doinua" y "Errota zahar maitea", todas con arreglos hechos por él. El público agradeció con fervor el trabajo del músico, que tuvo que tocar tres o cuatro obras más de bis. Este concierto nos quedará en el recuerdo.



Kontzertua

Antton Valverde bakarlarria

Antton Valverdek urte askoan izan du harreman estua Lourdesekin eta Xabierrekin. Xabier eta biak musika estilo bereko abeslariak izan dira eta elkarrekin emanaldi ugari eskaini dituzte. Horren lekuko izan genuen Valverdek Saroben eman zuen kontzertua. Lauaxeta olerkari bizkaitarraren inguruan prestaturiko saioa izan zen.

Lauaxetak preso zegoela bere bizitzaren azkenetan idatzitako olerkiak musikatu zituen Anttonek 70eko hamarkadan. 2004. urtean, proiektu interesgarri bat egiteko eskaintza jaso zuen Antton Valverdek: Lauaxetaren olerkiekin prestaturiko abesti politenak hautatu eta "Lauaxeta" izeneko ikuskizuna prestatzea. Azken hiru urte hauetan Euskal Herriko hainbat antzokitan eskaini du ikuskizuna. Urnietan ere ikuskizun horrekin taularatu zen Antton Valverde.

Saioko berritasuna azken abestia izan zen, "Joan zirenei" izeneko, Antton Valverdek musika hautatu eta Xabier Letek letra ipini diona. Abesti horrekin, Anttonek omenaldi bat eskaini nahi izan zien azkenaldian bere ingurutik aldenitu diren pertsona maitatuei, horien artean Lourdes Iriondori.

Antton Valverde ha mantenido siempre una relación muy estrecha con Xabier y con Lourdes. Lete y él son dos músicos con un estilo similar y han ofrecido juntos un sinnúmero de actuaciones. Prueba de ello es el concierto que Valverde ofreció en Sarobe, el recital "Lauaxeta", que ha llevado a más salas de Euskal Herria y que recoge poemas del poeta bizkaitarra. La novedad del concierto en Urnieta fue la última canción del recital, "Joan zirenei" (A los que se fueron), para la que Antton Valverde ha escogido la música y Xabier Lete ha compuesto la letra. Con esta canción Antton quiso rendir un homenaje a todas las personas queridas que últimamente ha perdido, entre ellas Lourdes Iriondo.



Joan zirenei

Nora galduak zineten gure lagun hurbilak bizitzaren gozatzailer egun batean hilak zuen itzalek diraute gaur gure ametsetan bizidunaren solasgai diren min haundietan.

Ederrak ziren egunak, arratsalde beteak baratzaren itzalera zeramaten atek, zuen pozak, atsedanak, irriaren zantzuak, hainbat aldiz izoztuak alhadura antzuak, izan zineten, osorik, gorputz eta izpirituz itxaso baten ertzean harriduraz geldituz.

Orain zuen bidetatik darraikigu bizitza zuentzat gure negarra, maitasunezko hitza, etzaudete guztiz urrun, gugan zuen egoitza zuekin gure iragana, oroitza eta otoi-tza, bizien eta hilen loan besarkatuko dira han gaude orduaren zai, azkenari begira.

Xoritoa norat hoa, bi hegalez airean



Lourdes gogoratzeko artelana

Martxoaren 27an egingo zituen Lourdesek hirurogeita hamar urte, eta hori ospatzeko bildu ziren haren lagun eta senitartekoak, hurrengo larunbatean. Horretarako, eta Jose Ramon Anda Bakaikuko eskultoreak Lourdesen omenez egindako monolitoa inauguratzeko, haren izena duen parkean.

Txanbolin bandako txistulariek, Urnietako alkate Florentino Ugaldek eta udaleko zinegotziek lagunduta, Lourdesen ahizpa Mari Angeles Iriondok kendu zion estalkia Andaren monolitoari. Gero, Iñaki Aranzadi herriko apaizak eskultura bedeinkatu zuen, eta Edorta Kortadi arte adituak hitz batzuk esan zituen, Andaren eskulturaren eta Lourdesen irudian oinarriturik:

"Eskulturak, giza tamainan, 2,20x1,60 m neurtzen du. Brontze kolore naturalez egina dago; lurretik jaiotzen da, lur azpian baitago sartuta; ez du oinarririk, eta lerden eta lirain altxatzen da, bere buruak zerurantz begiratzen duelarik. Lourdesen buruaren siluetaren antzekoa da: liraina, lerrozuena, bere sudur zorrotzarekin, ahots argi eta zuzenarekin, bere soslai estilizatuarekin, ahaltzuarekin, zehatzarekin, gu-

re lurrera zabaldua. (...) Eta nik diot, ezin al zitezkeen Lourdes eta Xabier izan, Urnieta-Donostia eta Oiartzun, herri-kultura eta kultura jantzia, tradizioa eta modernitatea, emakume hoken kantaeran, antzerkia egiteko eran eta ipuin eta hain modu miresgarrian urtu eta txertatu zirenak Euskal Herria modernitatera zabalduz?".

Xabier Letek, Lourdesen alargunak, esker hitz batzuk esan zituen omenaldi ekitaldian parte hartu zuten guztientzat. Duela gutxi ikusitako pelikula baten eszena bat ekarri zuen gogora Letek: "Musika maisu batek, bere ikasleekin izandako bazkari batean, eserleku huts baten aurrean edalontzi bat ardoz bete zuen. Ikasleetako batek maisuari edalontzia zergatik bete zuen galdetu zion, eta maisuak erantzun zion: 'Gure artean ez daudenentzat, egarri badira edan dezaten'".

Ekitaldia bukatzeko, Urnietako Udalak eskulturaren kopia txiki bana oparitu zien omenaldi ekitaldian parte hartu zuten guztiei, eskerrak emateko. Hauek izan ziren: Joxe Mari Iriondo, Joxanton Artze, Joxe Angel Irigarai, Pier Paul Berzaitz, Jexux Artze Fundazioa, Joxan Goikoetxea, Antton Valverde, Edorta Kortadi eta Xabier Lete.



Setenta años cumpliría Lourdes Iriondo el 27 de marzo, y para celebrarlo se reunieron sus amigos y familiares. Para esto y para inaugurar el monolito en recuerdo a Lourdes, creado por el conocido escultor de Bakaiakua José Ramon Anda y situado en el parque que lleva el nombre de la artista. Acompañados por la banda de txistu Txanbolin, el alcalde de Urnieta Florentino Ugalde y la edil y hermana de Lourdes, Maria Angeles Iriondo, fueron los encargados de des-tapar el monolito. A continuación, el párroco de la localidad Iñaki Aranzadi daría la bendición a la obra.

Los asistentes pudieron escuchar, asimismo, unas bellas palabras dedicadas a la obra de Anda y a la figura de Lourdes de la mano del crítico de arte Edorta Kortadi:

"(...) No quisiera acabar esta breve intervención sin decir en castellano dos cosas que tenemos que agradecer a Lourdes Iriondo. La primera, la de su entrega al campo de la cultura en el País Vasco: canción popular, literatura infantil, arte en general, a la que ella dedicó mucho tiempo, esfuerzo y corazón. La segunda, el punto de suavidad y dulzura que ella



▲ Jose Ramon Anda.

◀ Florentino Ugalde eta M^o Angeles Iriondo.

supo poner en todo lo que hizo y en momentos muy duros y complejos, especialmente con su voz femenina y clara. Ella fue una voz de mujer que supo estar en el momento preciso donde debía de estar, donde tocaba".

Xabier Lete también tubo unas palabras de agradecimiento a todos los participantes en los actos de homenaje. Recordó una escena de una película vista recientemente: "Un profesor de música que se encontraba comiendo con sus alumnos llena una copa de vino que estaba enfrente de una silla vacía. Uno de los alumnos, sorprendido, le pregunta por qué ha hecho eso, y el maestro le contesta: 'Es para los ausentes, para que puedan beber si sienten sed'".

Para finalizar el acto, y como muestra de agradecimiento, el Ayuntamiento de Urnieta hizo entrega de una réplica en miniatura del monolito a cada una de las personas y colectivos que han colaborado en el ciclo de actos de homenaje: Joxe Mari Iriondo, JoxAnton Artze, Joxe Angel Irigarai, Pier Paul Berzaitz, la Fundación Jexux Artze, Joxan Goikoetxea, Antton Valverde, Edorta Kortadi y Xabier Lete.

eskerrik asko

Eusko Jaurlaritzari eta Kultura sailburu Miren Azkarateri, bere interesagatik eta bertan egoteagatik.
Usurbilgo Udala eta Jexux Artze Fundazioari, emandako laguntzagatik.
Alkarlaguntza Fundazioari.

Musikaz gozarazi diguten Pier Paul Berzaitz, Joxan Goikoetxea eta Antton Valverderi.
Andrea Revuelta eta Antton Jauregiri, beren parte-hartzeagatik.

Eta errimaz errima jardun diren Patxi Etxeberria eta Txomin Garmendiari.

Txanbolin txistulari bandari, txistuaz alaitu eta zuen minueloekin hunkitu gaituzuelako.

Jose Ramon Anda eta Edorta Kortadiri. Aurrenekoari, egindako artelanagatik; bigarrenari, horren irakurketa estetikoagatik.
Gorputz eta arimaz aritzeagatik Joxe Mari Iriondo, JoxAnton Artze, Joxe Angel Irigarai eta Lourdesen senitartekoei.

Bere ezinbesteko laguntzagatik, bereziki, Xabier Leteri.

gracias

Al Gobierno Vasco y a su Consejera de Cultura Miren Azkarate, por su interés y su presencia.

Al Ayuntamiento de Usurbil y a la Fundación Jexux Artze, por la ayuda prestada.

A la Fundación Alkarlaguntza.

Por regalarnos su música, a Pier Paul Berzaitz, a Joxan Goikoetxea y a Antton Valverde.

A Andrea Revuelta y a Antton Jauregi, por su colaboración.

Y entre rima y rima a Patxi Etxeberria y a Txomin Garmendia.

A la banda de txistularis Txanbolin, por alegrarnos con sus txistus y emocionarnos con sus minuetos.

A Jose Ramón Anda y a Edorta Kortadi. Al primero, por su bellísima obra; al segundo, por la lectura estética que hizo de ella.

A Joxe Mari Iriondo, JoxAnton Artze, Joxe Angel Irigarai y a los familiares de Lourdes, por su entrega.

Por su inestimable ayuda, a Xabier Lete.





Urietako Udala
Ayuntamiento de Urrieta